



### 3 KULTURA Literatura lehiaketa martxan da

Lasarte-Oriako Kultura sailak beste urte batez, heldu eta gazteen literatura sustatzeko asmoz, literatura lehiaketa abian jarri du. Helduek poesia eta mikroipuinak aurkeztu ahal izango dituzte; haur eta gazteek, berriz, ipuin eta poesiak. Lanak euskaraz, zein gazteleraz izan ahalko dira. Helden mailan, sari nagusiaz gain, Lasarte-Oria saria ere banatuko da. Lanak maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

### 4-5 TXIRRINDULARITZA 1965eko Munduko Txapelketa haren sekretuak

Munduko Ziklismo Txapelketa jokatu ziren herrian 1965eko irailaren 2tik 12ra bitartean. Guztira mundu zabaletik etorritako 37 herrialdetako txirrindulariek hartu zuten parte eta emakumezko txirrindulariak ere herriko errepideetan aritu ziren pedalei eragiten. Herritarrik ez, baina Frantzisko Gabika, Txomin Perurena, Sebastian Elorza eta Jose Manuel Eusa (beheko argazkikoak) eskaldunak ortzadar mailotarengatik egin zuten borroka.



Kukukako kideek II. Dantza Topaketak aurkeztu zituzten Manuel Lekuonan.

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideek dantzaren nazioarteko eguna ospatuko dute emanaldi bereziarekin. Dantzaren eguna apirilaren 29an da eta egun horretarako herriko beste dantza talde batzuekin emanaldia anitza osatu dute. II. Dantza Topaketak 19:00etan izango dira Manuel Lekuonan eta honetara gerturatzeko deia egiten diete herritarrei.

az lehenengoz nazioarteko dantzaren eguna ospatu zuen Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak Dantza Topaketa batekin.

Egun horretan, mundu mailan zabaltzeko prestatzen den manifestua irakurri eta hainbat dantza eskaini zituzten dantza eskolako ikasleek

Maidar Oiartzabalen gidaritzapean.

Aurtengoan II. Dantza Topaketan, ikuskizun anitza osatu nahi izan du Kukukak.

Apirilaren 29an, Nazioarteko dantzaren egunean 19:00etan hasiko den saioan, Kukukako lau taldeekin batera, Erketz EDT, Amaia Gonza-

lez Caballero dantzaria, Semblante Andaluzeko Zambra taldea eta saharai eta afrikar dantza taldeak taularatu dira.

"Kukukaren kasuan, euskal dantza sorkuntza eta dantza garaikidekoak izango dira egun berezi honetan euren dantzak erakusten. Pieza berriak izango dira".

#### Jatorri anitzak

Maidar Oiartzabalek azaldu bezala, ideia Udalak sustatutako anitzen sarea egitasmoan parte hartzen sortu zen. Honetan "jatorri ezberdineko herritarrekin eta taldeekin harremanetan egonda, halako

emanaldi bat antolatzea polita izango zela pentsatu genuen".

Dantza topaketa honetarako sarrera bi eurokoa izango da eta herritar guztiei gonbita luzatu nahi izan diete Kukukako kideek kultur etxera gerturatu eta dantzaz goatzera hurbil daitezen. "Gu oso gogotsu gaude eta emanaldi ederra izango dela iruditzen zaigu". Asteartea izanda, ordu beteko saioa izatea aurreikusten dute.

Kukukak azaldu nahi izan du ere asmo sendoa daukala urtero dantzaren nazioarteko egunean topaketa hauekin jarraitzeko.

**ELECTRICIDAD ARREGUI**  
www.electricidadarregui.com

**ETORRI GURE ESKAINTZA BEREZIAK IKUSTERA!**

12 hilabete interesik gabe  
**TAE 0%**

**299€**

**479€**

**399€**

**469€**

**349€**

**479€**

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxa: 943 372521

Neure kabuz



**Gorka Lasas Mendizaleak**

Euskal Herria herri mendizalea denik ezin uka daiteke. Eguraldi onarekin batera, ikusi besterik ez dago, igande goizean nola betetzen diren mendiak jendez.

Baina mendizale guzti hauen artean, mendiarekiko maitasuna oso desberdina dela ere argi dago. Alde batetik, mendizale klasikoa dago, betikoa, zale gehien dituen. Igandero motxila hartu eta goiz pasa mendira abiatzen dena, kukua entzun, tximeletak hegan ikusi eta paraje paregabeen txango bat egitera lasai ederrean.

Bestetik, gure inguruan azken urteotan asko ugalduta den beste modalitate bat ere badugu, korrikalariena, alegia. Gero eta jende gehiago ikus dezakegu mendian gora eta behera, handik eta hemendik lasterka. Hauek ez txorien txio-txiorik entzun, ez tximeletarik ikusten dute. Kroonaren eta GPS-aren menpeko dira, baina zeinek uka hauek ere ez dutela mendia maite?

Hala ere, badira beste batzuk bi guriplik nahiago dituztenak mendira igotzeko. Mendian bizikletan ibiltzearen kontua aspaldikoa da, eta ez dira gutxi, askotan oinez kilometro gehiago egiten dituzten arren. Hauei ere ezin uka ez dutela mendia maite.

Bi guriplidunak, ordea, ez dira tximindulariak bakarrik, moto burundatsua batzuk ere ikusi eta entzun ohi dira maiz-maiz gure inguruan. Motorzaleek mendiari dioten errespetua zalantzan jarriko nuke, baina argi dago hauek ere mendia maite dutela, suntsitzeko bada ere.

Aipatutakoek gainera, badira mendian ibiltzen diren beste tramankulu zararatsu batzuk, quad deritzenak hain zuzen. Zulo, malkar, eta lokatz gehien dagoen tokietan ageri dira beroien trebeziaren erakustaldia egiten. Hauena argi dago mendizaleatasuna badela, baina maitasuna...

Eta bukatzeko, 4X4 autoak ere ohikoak dira gure mendiak pistetan. Makina bat ehiztari eta bestelako ibiltzen dira milaka euro balio dituen jostailu geldiezinarekin jolasean.

Zalantzarik gabe, mendizaleatasun handia dago Euskal Herrian, baina mendiaz gozatzeko eta mendia maitatzeko oso modu eta era desberdinak.

Zorion agurrak



**Ander eta Unax**

Zorionak bikote! Gurasoen partetik muxu potolo bat.



**Feli**

Zorionak amona Amaiur, Ekaitz, Aizkoaitz eta Imanolen partetik. Duela urte 1 edo 2 ni ez nintzen izan!



**Ariadna**

Zorionak!!! 7 muxu goxo amona eta aitona-ren partetik.



**Iria**

Zorionak!!! Jaso 4 muxu goxo amona eta aitona-ren partetik.



**Salma**

Zorionak zure bostgarren urtebetetzean. Maite zaitugu!



**Ander eta Jon**

Zorionak zuen 7. urtebetetzean! Maite zaituztegu!!!!



**Leyre**

Zorionak Tamara eta Yeray-ren partetik! Ondo pasa zure hemezortzigarren urtebetetzean!



**Joxe Mari**

Bai, bai! Fase interesantea iritsi zaizu! Zorionak lagun guztien partetik!



**Aintzane**

ZORIONAK zure hamargarren urtebetetzean eta MUXU HANDI BAT etxekoan partetik.



**Maialen**

Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu pila zure familia guztiaren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Logela alokatzen da pertsona bat edo birentzat Usurbilen. Prezio interesgarria. Harremanetarako, 657 535 299.
- Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea. 14 metro karratu. Telf: 607 491 663, Ariz.

Lan-eskaintza

- Emakume bat behar da pertsona heldua zaindu eta etxeko lanetarako. Egunean 4 ordu, gosaria, bazkaria eta afaria emateko. Astelhe- netik larunbatera eta kotxea behar du. Kon- tratuarekin. Tel.: 615 734 794.

Lan-eskaria

- Garraiolari edo biltegizain lanak egiteko gizona prest. 657 535 299.
- Emakume eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adinduek zaintzeko. Harremanetarako, 631 253 468
- Etxean garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke externa edo inter- na moduan. Lehen bait lehen hasteko prest. Harremanetarako, 634 278 198.
- Interna, externa modura edo orduka lan egi- teko prest nago. Garbiketan edo pertsona adinduen zaintzan. 671 763 558

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Uxuri Gorostidi Escudero, apirilaren 10ean.
- Danel Rey Gonzalez, apirilaren 4an.

Heriotzak

- Ignacio Salsamendi Amunarriz, apirilaren 22an, 83 urte zituela.
- Pedro Valdivia Milla, apirilaren 16an, 72 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 25-Igandea, 27	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 28	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astearte, 29	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 30	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 01	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Ostirala, 02	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 03-Astelehena, 05	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astearte, 06	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 07	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 08	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,  
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea  
Etzagirre, Jon Altuna E.

**txintxarri@txintxarri.info**

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasas,  
Ane Labaka, Maitu Amutu,  
Aster Odriozola, Jone M.,  
Hernandez Oihana Salazar,  
Pako Aizpirtarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz



## LITERATURA

## Literatura lehiaketa abian

Lanak aurkezteko azken eguna maiatzak 30 izango da

27. literatur lehiaketa dagoeneko martxan da. Helduen kasuan poesia eta mikroipuinak aurkeztu ahal izango dira eta haur eta gazteek ipuin eta poesiak. Sariak dirutan emango dira eta 1.000 eurotik 76 euro artekoak dira kategoriatan eta sariaren arabera. Lasarte-Oria saria ere banatuko da helduen atalean eta haur eta gazteen kasuan herritarrek soilik parte hartu ahal izango dute.



lazio literatur lehiaketan saritutakoak.

## TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak, Kultura Batzordearen bitartez literatura lehiaketa jarri du martxan. Aurten ere helduei zein gazteei zuzenduta dago. Bi multzoetan euskaraz zein gaztekeraz aurkeztu ahal izango dira lanak.

Helduen kasuan poesia eta mikroipuinak aurkeztu ahal izango dira. Azken hauek gehienez 1.500 karaktere izan beharko dituzte eta adinaren arabera bi kategoriatan izango dira. Sari nagusiaz gain, Lasarte-Oria

saria ere banatuko da. Honetan parte hartzeko 1998. urtean eta aurrekoetan jaiotako izan behar dira idazleak.

Haur eta gazteen lehiaketari dagokionean, ipuinak eta poesia lanak aurkeztu ahal izango dituzte.

Lasarte-Oriako bizilagun izan beharko da parte hartzeko. A kategorian 2005. urtean gerotik jaiotakoak, B kategorian 2002, 2003 eta 2004. urteetan jaiotakoak lehiatuko dira eta C kategorian 1999, 2000 eta 2001ean jaiotakoak.

Adinaren arabera ipuinak gutxienez orrialde bat, bi edo hiru izan beharko ditu.

Hauen kasuan ere, euskaraz zein gaztekeraz idatzitako lanak izan ahal dira.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 30ean amaituko da.

## Oinarriak

Lehiaketako oinarrien xehetasunak [lasarteoriasarean.eu](http://lasarteoriasarean.eu) webgunean aurki daitezke. Honetan ere zehaztu egiten da multzo bakoitzean izango diren sariak. Udaleko kultura sailetik honetan parte hartzea animatu nahi dituzte herritarrek.

Sariak banatzeko ekitaldi berezia azaroaren 22an egingo da Manuel Lekuonan.

## MATRIKULA

Musika eskolan izena emateko aukera

2014-2015 ikasturtean Lasarte-Oriako Udala Musika Eskolan izena eman nahi duenak apirilaren 28tik aurrera egin beharko du aurrematrikula. Epea maiatzaren 16an amaituko da eta derrigorrezkoa izango da aurrematrikula egitea ondoren matrikula egin ahal izateko.

Plaza baten eskabidea egiterakoan, 40 euro ordaindu beharko dira Udalak horretarako ezarriko duen kontu korrontean, eta dagokion matrikula egitean itzuliko zaio diru-kopuru hori herritarri. Eskaera egin eta gero matrikula gauzatzen ez duenak ez du ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik izango.

Manuel Lekuona kultur-etxean egin beharko da aurrematrikula apirilaren 28a eta maiatzaren 16a bitartean, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

## MUSIKA TOPAKETA

Kontzertua komentuan

Danak Kide elkarteak antolatutako IX. Musika Topaketen baitan kontzertua izango da gaur ostirala 19:30ean Brigitarren komentuan. Klabinenbalo eta biolin barroko kontzertua izango da Jose Antonio Pascual eta Francisco Herreroren esku.

Aipatu behar da berezia dela Herrerok dakarren biolina. Honakoa Bruselan Jean Hÿacinot Rottembergek 1753. urtean egin da. Hau dela eta oso soinu berezia dauka. Errepertorioari dagokionez, klasikoa izango da. Sarrera ohi bezala doako izango da.

## ELKARRETARATZEA

Rafa Diez eta Jabi Gallagaren berri emango da

Hileroko azken ostiraletako deialdiari erantzuten, espetze politika salatuz presoen eskubideen alde gaur arratsaldean Okendon egingo den elkarretaratzean Rafa Diez eta Jabi Gallagaren berri emango da.

Sakabanaketa oinarri duen espetze politika indarrean jarri zutenetik 25 urte pasa direla azpimarratzen dute sustatzaileek eta "bidaiei lotuta senide eta lagun asko dago Lasarte-Orian".

Rafa Diez Santofian dago eta Jabi Gallaga Kordoban. Hauen senide eta lagunak euren berri emango dute 20:00etatik 20:30era egingo den elkarretaratzean. Tartean bertso batzuk eskainiko zaizkie.

## Udal Gobernuak pozik onartutako aurrekontuekin

Alkatea Nerea Sanchez eta Gorka Lizarraga zinegotziekin egindako agerraldian oso pozik agertu zen Lasarte-Oriako 2014ean izango dituen aurrekontuekin. Barriok aurretatu zuenez, nahiz eta %100ean asmoak ez bete, jasotzen diren partidak eta gastuak funtsezkoak dira herriarentzat.

Pablo Barriok nabarmendu zuen "errealitatean eta bizi dugun egoera sozioekonomikoan oinarrituta daude aurrekontuak, behar sozialak kontutan hartuta, Gizarte Zerbitzuetako alorra izan da gehien indartu dena. Tartean herriko garapen ekonomikoa sustatzeko eskualdeko udalekin batera garapen agentzia sortzeko bidean urratsak emango dira".

Herriko merkataritza sustatzeko ekimen ezberdinak egingo dira eta hauek finantziazteko partidak aurreikusi dira ere. Aurrekontu hauetan emandako aurrera pauso handiena alkatearen hitzetan, inbertsioak egin ahal izateko



Aurrekontuen balorazioa egin zuen Udal Gobernuak.

da. "Funts forala itzultzearekin batera, azken urteetan genuen zor handi bat kitatu dugu eta soberakin bat badugu inbertsioak gauzatu ahal izateko. Bide ezberdinak lantzeko aukera zabaldu zaigu".

## Inbertsioak

Nerea Sanchezek inbertsioetako batzuk aipatu nahi izan zituen.

Kale asfaltatzeak izango dira partida garrantzitsuenetako bat 273.512 euro honetara bideratuta, argiteria ere berritu egingo da normatibara egokitzeko 50.000 euroekin.

Herriko parkeetako haur jolasak ere berritu eta konponduko dira eta "Orion parke berri bat jarriko da" 71.800 euroekin.

Goiegiko ezponda indartzeko "hainbat lur erorketa egon dira" eta honetarako, 50.000 euro erabiliko dira.

Mugikortasunari dagokionez, Mantangorriin Mugi txartela erabili ahal izateko sistema berrituko da eta horretarako Udalak 36.000 euro erabili beharko ditu "herritarrek horrela txartela honek dituen abantailaz gozatu ahal izango dute".

Hirigintza sailean, udaletxean hainbat moldaketa egiteko 48.000 eurotako diru partida bat aurreikusi da, Tximistarretan haur jolasak eta iturri bat jartzeko 66.000 euro onartu dira eta ikastetxeetan hainbat hobekuntza ere egingo dira. Sasoetako bajoetan hainbat lokal botako dira San Martzial eta Uzturre plazakoak hain zuzen, tunel luzeen garbitzeko asmoz.

Kiroldegi berri baten proiektua egingo da eta Donostiarekin herria lotuko duen bidegorriaren lanen parte bat hartuko du Udalak bere gain. Udaletxe berriko zati publikoa txukuntzen 100.000 euro erabiliko dira eta udaletxe zaharrean berriz, bi urtean hainbat gune berrituko dira.

Gaztelekuan altzariak erosteko 25.000 eurotako inbertsioa egingo da.

Kirol ekipamendua berritzen jarraituko da eta kulturaren, proiektore digitala erosteko da zinemarako, liburu berriak etab. Euskarari dago

kionez, "martxan dauden proiektuak jarraitzea ematea bilatu da". Ingurumenean beste bi konpostagune jartzeko dirua aurreikusi da eta Agenda 21 ekimenarekin jarraituko da.

Animalien ordenantza berria dela eta informazio kanpainak burutzeko dirua gorde du Udalak Sanchezen hitzetan.

## Gizarte zerbitzuetako igoera

Gizarte zerbitzuetako dagokionean, Gorka Lizarragak azaldu zuen enplegu sustapenerako eskualdeko garapen agentzia sortzeko lehen urratsak emango direla.

Bestalde, eskuhartzeetara bideratutako dirua nabarmen igo dela esan zuen.

Etoko laguntza zerbitzua, psikologoaren lan jarduna handitu egin da eta jardun osoz arituko da eta demetziak dituen jendearekin martxan jarritako lanketa pilotua saillean, zerbitzu finko izango da. Laguntza sozialetara bideratutako partida bikoiztu egin da.

# Oroimenaren pedalkadak

Munduko Ziklismo Txapelketak jokatu ziren herrian 1965eko irailaren 2tik 12ra bitartean

**Lasarte-Oria betidanik izan da kirolari estu lotutako herria, Bat Formulako zirkuitua, Atsizabarreko golf zelaia, Hipodromo zaldi lasterketak, Nazioarteko Krosa... Baina ziur gazteenek ez dakitela gurean ortzadar maillota jokoan izan zenik 49 urte atzera. Alegia, herriko erpedeetan izan zirela munduko ziklistarrik sonatuak elkarri mokoa, elkarri erasoka pedalei eragiten munduko txapelkun izateko. Orain, pedalei atzekoz aurrera eragiteko ordua da, denboran jauzia egin eta zuri beltzean dauden argazkiak begiratzeko. Oroi-mena koloretzatzeko garaia.**

JON ALTONA EGOTEGI

Duela ia mende erdi, 1965. urtean, Munduko Txirindularitate txapelketak jokatu ziren gurean irailaren 2tik 12ra bitartean. Lasarte-Orian egun ziren erpediko probak eta Anoetako bedelodromo pistakoak.

Guztira mundu zabalek etorritako 37 herrialdeetako txirindulariek hartu zuten parte. Txapelketak eduki zuten berezitasunik gainera. Estatuan, Frankismo garaian lehenengo aldiz, emakumezko ziklistak pedalei eragiten ari ziren ortzadar maillota janzteko borrokan herriko erpedeetan barrena.

**Parte-hartze mundiala**

Antolakuntzak ibilbide gorabeheratsua nahi zen, aldapa motz eta pikoak zuzengune lauekin uztartuko zituen zirkuituaren bila aritu ziren luzaroen. Baten bat Lasarte-Oria Bat Formulako autobus zirkuitu historikoko gogoratzen eta zerra ixurako Buruntzalde inguru parajeak primerakoak suertatu ziren tropela zorrotzeko.

Bost kontinenteetako txirindulariak aritu ziren pedalei eragiten. Besteak beste, Japo-



Tommas Otamendi herritarra emakumezko txirindulari bat aratzen eroriko baten ostean, Kale Nagusian. T.VALLÉS

Andoain-Villabona-Irura-Tolosa-Alegia (itzulia hartu)-Tolosa-Irura-Villabona-Andoain-Urnieta-Hernani-Lasarte. Guztiara 50 kilometroko ibilbidea zuten zirkuituak. Lasterkeriek bi itzuli eman zizkioten zirkuituari 100 kilometroko erlojupeko bortitza eta luzea osatzeko.

Irabazleak italiarrak izan ziren, Pietro Guerra, Luciano Dalla Bona, Mino Denti eta Giuseppe Soldik jantzi zuten urrea. Zilarra Espainiarantz izan zen, Ventura Diaz Arrey, Jose Manuel Lopez Rodriguez eta aurrez aipatutako Perurena eta Lasar Orlaino ziklistak.

Erpedeak lasterketa berri, larunbat arratsaldean izan zuten afizionatuek. Eguerdioko 13:00etatik aurrera Lasarte-Andoain-Urnieta-Hernani eta Lasarte josten zuten 19,100 kilometroko ibilbideari bederatzita itzuli eman behar izan zizkioten 171,900 km. osatzeko. Jacques Bothel frantziar jantziak jaso zituen bi besoak, Jose Manuel Lasar oartzuarrak kolkoratu zuten zilara eta Battista Monti italiarra izan zen hirugarren.

**Emakumezkoak erpedean** 1965eko irailaren 4a historikoa izan zen gure herriarentzat. Baina ez Lasarte-Oriarentzat bakarrik, baita estatu mailako ziklistoarentzat ere. Frankismo garaian lehenengo aldiz, emakumezkoak lasterketa bat lehiatzen ikusteko aukera izan zen. Aurretik, Errepublikara, 1935. urtean egin zen Espainian historiako emaku-

mezkoen lehen lasterketa. 22 km. izan zituen, Madrilen jokatu zen eta batez bestekoa altua izan zen oso, 36km/h. Garaileak Angelita Torres suertatu zen. Munduko Txapelketa itzulia, 30 urte berregelatua emakumezkoek maillota eta zuzkietoen guztira 51,945km-ko ibilbidea osatzeko. Zirkuitu erraza zuten: Buruntz inguratuta. Lasarten hasi, Andoaineko bidea hartu, handik Urnietera, Hernani eta buelta Lasartera.

Ortzadar maillot hura Elisabeth Eichholz-ek irabazi zuen (Alemaniako Errepublikan Demokratioa). Atzetik izan zituen Yvonne Reunders belgikarra eta Aino Pourenen sobietarra. Oro har, garrantzia gutxi eman zitzaion Espainiako prentsan "damen" lasterketari, eta bada garaiko kronistari egitarauan "dama" irakurtean frantsesezko hitza zela uste zuenik ere. Baina ez, emakumezkoak ziren pedalei eragiten ari zirenak. Askori emakume eta kirolaria hitzak garai hartan antagoniko eta bateraezin iruditzen zizkizkion arien.



Tom Simpson Oriako podiumean pozik ortzadar maillotarekin. DZKAEBERG

**Simpsonen ortzadar maillota** Egun handia, nazioarteko prentsa Lasarte-Oriara begira jarri zuten zita gizezko txapelketa izan zen: 1965eko irailaren Seko igande hura. Afizionatuen zirkuitu berbera zuten aurretik, alde txiki batekin hori bai. Profesionalek 267,4 kilometro egin behar izan zituzten, afizionatuek baino ia 100 kilometro gehiago.

Hasiera batean 100.000 txirinduzale espero bazituzten ere, 35.000 izan ziren ibilbidean sartzeko sarreara ordaindu zutenak. Lehiatilan bildutako ez zen nahikoa izan Munduko Txapelketaren aurrekontua bete eta kubritzeko.

Egun hartako protagonista dena den, euria izan zen. Eurria egin zuten goian behean. Etenik gabe euria. Horixe izan zuten bidaide ziklistek lasterketak irau zituenei ordu eta erdi pasatxoetan. "Gurutze-bidea". Halaxe definitzen dute garaiko kronistek ziklistek bizi behar izan zutena. Sufirikarioa latza.

Helmuga garrisa eta irribarre artean igarotzen lehena Tom Simpson britainiarra izan zen. Gerora 1967ko Mont Ventouxen hilko zen ziklista. Iztaze ez zen faboritoez zerrendan agertzen Simpsonen izena. Ezta Rudi Altig ale-

*Kronista bat edo bestek egitarauan "dama" hitza irakurtzean frantsesezko hitza ote zen galdetu zuela zabaldu zen garaiko kazetetan*

*Gurean ortzadar maillota jantzi zuen Tom Simpson britainiarra Mont Ventoux igotzen ari zela zendu zen bi urte geroago Tourreko etapa batean*

maniarrarena ere, azken zuzengenera arte iheski izan zuten pistard handi eta zabalarena.

Bi txirindulari hauetako inork ez zeraman denboraldi bikainik. Kontrakoa, bietako inork ez zuten itzuli handirik lehiatu denboraldi hartan eta kinitela eta apostuetan ez zen haien izenik ageri. Baina biak atsedean hartuta iritsi ziren Munduko Txapelketa, hankak fresko zituztela. Eta burua ere bai, halako lasterketa gogor eta luzeetan are garrantzitsuagoa dena. Datu bat ematearren, 110 ziklista abiatu ziren eta 56 besterik ez ziren helmuga marra zeharkatzen iritsi. Azkeneko tropel txoak garaileak baino ordubete gehiago behar izan zuten lasterketa amaitezeko.

**Heriotzaren horma**

Hamabigarren itzulia hauatu zuten iheslariek pelotoari hordagoa botatzeko. Aukeraturako lehen: Antziolako aldapa ezaguna, Hernanitik Galarteara igotzen den "Heriotzaren alda" inenez ezagunagoa den murrutza. Kurioso da nondik datorkion horren izen iluna bidea. Badirudi Bat Formulako zirkuituan istripu gehien gertatzen ziren zonaldea zela. Puntu beltza alegia. Gainera, autoek mekanikoki ere matorra ugari izaten zituzten pitoretz eta zutelako matorra behar bezain laster aldatzen eta kotxeak ito egiten zituztelako aldan gora.

**Helmugan atsekabea**

Oriako helmugan urduridatua, ezineguna eta hein batean haserrea ere arnas zitekeen kazetari, masaje-emaile, antolatzaile eta herritarren artean mundu mailako izarrak tropelean babestuta joatera mugatu baitziren. Lasterketa serio hartu ez zutenaren pertzepzioa handia izan zen jendartearen. Besteak beste, Anquetiek, Van Loyk eta Poulidorrek txistu eta irainak jaso



Tropela Oriar barrena, 35.000 lagun izan ziren bide bazterretan. DV



Tom Simpson britainiarra eta Rudi Altig alemaniarra helmugara iristean. Garaipena eta porrota batera. DORSAL51

zituzten ez soilik eskualdekoen aldetik, baita nazioartetik milaka kilometro eginda gurea lasterketa ikustera etorri ziren ikusleen partetik ere.

Kirol arloan ordea, eguraldiak lagun du ez arren, profesionalen lasterketan 39,450 km/orduko batez bestekoa egin zuen Simpson garaileak. Lasarte-Orian jokaturakoa izan zen ordurarteko Munduko Txapelketa azkarrena. Bat Formulako autoen pare ibili ziren ia, zirkuitu berean. Zitu biazan, baina bi gurpilen gainean.

**Mundialeko bitxikeriak**

Gaztea izanagatik, ondo gogatu du Jesus Mari Eguizabalek (gerora Lasarte-Oriako DVko kronista izana) 1965eko irailean. Hainbat anekdotak gogoratzen ditu: "Frantziar, holar, alemaniar eta belgikarren presentzia handia izan zen, dozenaka autobus iritsi ziren herrira eta haien asmoa kanpin dendak herrian jartzea zen, baina eguraldi txarrak bazterrek lokazuta utzi zituen eta autobusetan bertan egin behar izan zuten lo".

Antolatzaileek Oria aldean tribunak jarri zituzten ikusleek eserita ikus zezaten txirindularien ailegatera. Berezia izan zen nola egin zuten Loiolako Kuarteleko Guardia Zibilek behin-behineko zubi bat Oriatik Hipodromora, kotxeak bertan aparka zitzaizuten. Denborale garaia zen ordea, Oria ibaiak 4 metroko emaria zeraman eta harrotutako korronteek eraman egin zuten zubia.

Ez zen arazo bakarra izan, erpedeko lasterketak hasi bezperan, goizaldean, tiro bat edo beste izan zen telefono linean. Pentsatzekoa da garai hartako kazetarielak larratasuna franko izango zutela, artean ez baitzen Internet eta mugikorrik. Eguraldi txarrak konponketa atzeratu egin zuten gainera, ordu asko

*Antolatzaileek oso zorrotz jokatu zuten ikusle guztiak ordain zezaten. Meza entzuteko edo premiako erosketaren bat egiteko soilik ematen zieten etxetik irteteko baimena*

Yerobi taileraren artean ikusten genituen pasatzen eta helmuga berri. Gure Etxeko telebistan. Anekdotak gisa esango dizut gure aita zuden berria -Mariano Valles- zirkuitura sarta zela profesionalen atzetik bizikleta hartuta jendearan algar eta txalo artean. Ze lotsa!"

**Gerra Hotzaren eragina** Gerra Hotzaren garaia zen bete-betean 60ko hamarkada eta gurean ere izan zuten eragina potentzia kapitalista eta komunisten arteko hikamika. Ez zen irabazle omenez ereserik irauten antolatzaileak eta Nazioarteko Txirindularitza Elkarteak (UCI) hala adostu zutelako.

Badirudi Mendebaldeko Alemanian kapitalista kezatu egin zela Ekialdeko Alemanian komunista txapelketan parte hartuko zuelako, eta baina arketako arma eta adostasuna bilatu asmoz, ez zen inongo herrialderen ereserik irauten podiumean.

## ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomoa ontzuetua	Solomoa baratxuritan
Etxeko txorizoa	Tripakiak- Saltxitxak



**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Loioli Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451



## SASKIBALOIA.-

## Saskibaloia taldeak finaleran izango dira

Kadeteek final four-a jokatuko dute eta jubenilak Goierri Ayma-ren aurka lehiatuko dira lehenengo izateko

Denboraldi ederra egin dute Ostadar SKT-ko saskibaloia taldeek. Kadete taldeak partida guztiak irabazi ditu eta jubenilak ere ez dira atzean geratu, bigarren fase honetan. Ondorioz, bi taldeek maiatzaren 3an hitzordu garrantzitsuak izango dituzte. Kadeteek final-erdiko partida izango dute eta jubenilek berriz, lehen postuko joan-etorriko lehia hasiko dute.

## TXINTXARRI

Ostadar SKT-ko saskibaloia ataleko kadete neskek denboraldi itzela sinatu dute. Errendimendu ligan jokatutako 20 partidatik 20ak irabazi dituzte eta horregatik, final four-an sartu da taldea.

Apirilaren 12an, etxean jokatutako azken partida Itziar Bermudez eta Ander Otaegui zuzendutako taldeak eta ez zuen huts egin. Bera Bera Manteok ederki egin zion aurre eta denboraldiko nekez baliatu zen, baina azkenean 59-38 gailendu zen Ostadar SKT taldea.

Entrenatzaileek aipatu digutenez, nahiz eta partida batzuetan errendimendua jaitzi, ez dago irabazi dion talderik, eta "errendimendu ona dutenean izugarriko partida egiteko gai dira".

## Final four

Orain kadeteak indarrak berreskuratzen ari dira. Izan ere, hurrengo astean final four-a jolastuko dute Bera Berako kantuan.

Ostadar SKT-rekin batera Añorga, Azpeitia eta Atletico San Sebastian sailkatu dira. Txapelketako garailea Gipuzkoako txapeldun bihurtuko da.



Kadete taldeak final four-a jokatuko du hurrengo asteburuan Donostian. OSTADAR SKT

Maiatzaren 3an, final-erdiko jokatuko dira Ostadar SKT-Atletico SS eta Añorga-Azpeitia dira. Igandean, berriz, finala jokatuko da.

"Urte osoko lanak oparia du, Gipuzkoako finalean jolastea eta gure neskek merezita sartu dira, eta ea irabazten duten," adierazi dute entrenatzaileek.

bazten dute," adierazi dute entrenatzaileek.

## Jubenilak ere bikain

Jubenilek apirilaren 05ean eman zioten amaiera partaidetza ligako bigarren faseari eta ederki gainera, Andraitx taldea garaitu zuen 35-88.

Fase honetan Endika Marrahi eta Mikel Bermejoren neskek 7 partida jokatutuzte. Hauetatik bat galdu eta sei irabazi ditu taldeak eta horregatik Ostadar SKT sailkapeneko bigarren bezala amaitu du fase hau.

Endika Marrahi entrenatzaileak azaldu digunez, "asko kosta zaigu maila honetara iristea, jokalariek gehienek urtebete egin zuten jolastu gabe. Nahiz eta lehen fasean igoera taldean ez sartu, bigarren fasean egiten ari direna harro egotea da".

## Lehen postuaren bila

Orain Endika Marrahi eta Mikel Bermejoren taldeak fase honetako lehenengo postua du jokoan.

Arierio Ayma Goierri izango da eta joan-etorriko partidak jokatutako beharko dituzte, bata maiatzaren 3an, larunbata, 16:00tan, Kiroldegian eta bestea, maiatzaren 11ean, igandean, 12:15ean, Goierriin.

## KIROL AGENDA.-

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 25

## HERRIKO TXAPELKETA

19:45ean, Izkiña-Izarra bitxitogia  
20:45ean, Indaux-Txindoki

Larunbata 26

## HERRIKO TXAPELKETA

09:15ean, Trumoi-Viña del Mar  
10:15ean, Buenetxea-Arkupe  
11:15ean, Arizta taberna-Balerdi harategia  
12:15ean, Urdaneta H.K.-El Punto

## SASKIBALOIA

Larunbata 03

## Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT-Ayma Goierri  
Jubenil neskek, partaidetza

## Bera Bera, Donostia

Atletico San Sebastian-Ostadar SKT  
Kadete neskek, errendimendua. FINAL FOUR

Igandea 04

## Bera Bera, Donostia

Ostadar SKT kadete nesken errendimendua finala joko dezake.

## ATLETISMOA

Igandea 27

## Errenteria, 09:30etan

Herriko hainbat korrikalari San Marko mendiko lasterketan izango dira.

## Irun, 11:00etan

Herriko hainbat korrikalari Irungo maratoki erdian hartuko dute.

Osteguna 01

## Andoain, 10:30etan

Herriko hainbat korrikalari Andoaingo Santa Kruz Kross herrikoian izango dira.

## Tolosa, 11:30etan

Herriko hainbat korrikalari Udaberriko I. lasterketan parte hartuko dute.

Larunbata 03

## Zaramillo, Bizkaia, 06:00etan

Herriko hainbat atleta Apuko Ultratrail Xtrem proban lehiatuko dira.

## Zaramillo, Bizkaia, 10:00etan

Herriko hainbat atletek Apuko Long Trail proba egingo dute.

## Donostia, 16:30etan

LOKEko eta herriko atletek aire libreko kadete, jubenil, junior eta beterrano mailako Gipuzkoako txapelketa dute.

## Altza, 17:00etan

Herriko hainbat korrikalari Altzako Herri Biran parte hartuko dute.

Igandea 04

## Ordizia, 09:00etan

Herriko hainbat korrikalari Aloñako igoera proban parte hartuko dute.

## Monreal, Nafarroa, 09:30etan

Herriko hainbat korrikalari Hoga Monreal VI Xtreme maratoki erdian izango dira.

## Donostia, 10:00etan

Herriko hainbat korrikalari III. Kros Berdean lehiatuko dira.

Tolosa, 10:30etan

LOKEko eta herriko atletek aire libreko kadete, jubenil, junior eta beterrano mailako Gipuzkoako txapelketa dute.

## DUATLOIA

Larunbata 26

## Eibar, 16:45etan

Herriko hainbat atleta XXIII. Eibarko Duatloian izango dira.

## IGERIKETA

Larunbata 26

## Huesca, 16:30etan

Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutuak "Huesca Hiria" sarian lehiatuko dira.

## SQUASHA

Ostirala 25-Osteguna 08

## HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera  
A eta B multzoko partidak.

## PILOTA

Igandea 27

## GRAVINO TXAPELKETA - FINALERDIAK

Zornotza, Bizkaia, 10:00etan  
Gipuzkoa (Axier Arteaga)-Errioxa  
Eskuz binaka, jubenila. Ezker horma.

Beltzenia, Hendaia, 10:00etan  
Gipuzkoa (Aritz Solano)-Araba  
Eskuz binaka, jubenila. Trinketeta.

Beltzenia, Hendaia, 16:00etan

Bizkaia-Gipuzkoa (Mikel Landa)  
Eskuz binaka, seniorra. Trinketeta.

## TENISA

Larunbata 26-Igandea 27

## Kirol guneko pista

Lasarte-Oria ATG txapelketako partidak izango dira. Ander Huegun herritarra final-laurdenetan dago.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 26

## Zegama, 16:30etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilak XXX. Elkartu Nahi Sarian lehiatuko dira.

Igandea 27

## Biyak Bat elkarte, 08:30etan

Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Debara egingo du irteera.

## Lizarrak, Nafarroa, 10:00etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilek Euskal Herria torneoan parte hartuko dute.

## Elgoibar, 11:00etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteak XXVI. Deba Sarian lehiatuko dira.

Larunbata 03

## Lasarte-Oria, 10:30etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilak

XXXVIII. Lazkaoemendiko proban izango dira lehiak.

## Zestoa, 16:00etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteak Gurutzegia Sarian izango dira.

## Zumaia, 16:30etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantil eta alebinak Zumaia Sarian lehiatuko dira.

Igandea 04

## Biyak Bat elkarte, 08:30etan

Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Errezilera egingo du irteera.

## ERRUGBIA

Larunbata 26

## Kirol gunea, 16:00etan

Babyauto Zarautz-Universitario Bilbao  
Euskal Liga seniorra, Ohorezko B maila

Igandea 27

## Kirol gunea, 10:30etan

Beltzak Ostadar Jalai eskolako lagunek topaketa dute.

## BOLA-JOKOA

Igandea 27

## Gabiri, 10:00etan eta 16:30etan

Ostadar SKT-ko bola joko taldeak Gipuzkoako kopako saioa du.

Igandea 04

## Lasarte-Oria, 10:00etan eta 16:30etan

Ostadar SKT-ko bola joko taldeak Gipuzkoako kopako saioa du.

## Agenda

Larunbata 26, 16:30ean eta 19:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



### Elkartasuna nagusi

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Bizipoza ikuskizuna aurkeztuko dute. Ikuskizunean elkartasunaren gaia lantzen dute, eta horretarako, Txernobyletik datorren laguna jaso nahi dute aireportuan. Euren furgoneta Panpoxa ez dabil eta garaiz iritsiko ez ote diren beldur dira. Azkenean, arazoak atzean utziko dituzte jasoko duten laguntzari esker. Jalgune elkarteko lagunek ere bertan parte hartuko dute. Xirimiri elkartearen 25. urteurreneko ekitaldia. Sarrerak, 7 eurotan salgai Jalgi Kafentzokian eta Urruzola mertzerian.

gozatzeko aukera.

**Larunbata 26, 21:00etan**

Santa RM & Isusko, Loren eta Lara Feminah kontzertuan, Old School-en eskutik. Sarrera aurretik, 7 euro; leihatilan, 9 euro.

**Larunbata 26, 23:55ean**

Old School sesioa DJ K & DJ Kinoren eskutik.

**AMA BRIGITARREN KOMENTUA**

**Ostirala 25, 19:30ean**

Danak Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketan barruan Klabinenbalo eta biolin barroko kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

**MENDI KAFE-ROCK**

**Larunbata 26, 20:00etan**

Lee Juniorrek ahots eta piano kontzertu basikoa eskainiko du. Doan.

**ABEND KAFE-ANTZOKIA**

**Larunbata 26, 23:30ean**

Rock Gaua! jaialdiaz gozatzeko aukera Hyronika eta Anonimos taldeen eskutik.

## Lasarte-Oria

### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Ostirala 25, 22:00etan**

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "Agosto" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.



**Igandea 27, 17:00etan**

Haurren zinea atalean, "El medallon perdido" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

**Igandea 27, 19:30ean**

Helduentzako zinea, "Agosto" filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

### Hitzaldia

**ELEBELTZ TOPAGUNEA**

**Ostirala 25, 19:00etan**

II. Agroekologia eta autogestio jardur-

naldien barruan, Ekologistak martxaneko Luis Gonzalez eta AHTaren aurkako mugimenduko Mikel Alvarezek "Kapitalismoaren krisia eta erresistentzia lokalak" hitzaldia eskainiko dute. Uztaro Kooperatibak antolatua.

### Musika

**ZULO ARETOA**

**Ostirala 25, 21:00etan**

Immune eta Sealed Room taldeen kontzertua. Sarrera aurretik, 8 euro; leihatilan 10 euro.

**Ostirala 25, 23:55ean**

Chanclero & Bermudo djen saioaz

### Ipuin-kontalaria

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Asteazkena 30, 18:00etan**

3 eta 5 urte arteko haurrei zuzendutako ipuin irakurketa izango da.

### Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Apirila amaiera arte**

Udako Txoko eta Kanpaldien argazkiak ikusteko aukera.

**Maiatzaren 5etik aurrera**

Patxi Unanueren argazki erakusketa izango da ikusgai.

## Herritarren txokoa

### Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan apirilaren 28an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazaina da eta odol falta dago!

### Liburutegiko ordutegia Pazko Astean

Udal Liburutegiko arduradunek, liburutegiak Pazko astean izango duen ordutegia eman dute jakitera. Apirilak 22tik 25era liburutegia goizez bakarrik irekiko da 8:30etik 14:00etara.

Arratsaldez, berriz, ikasgela txikiak irekiko dira bakarrik liburutegiaren ohiko ordutegian, 16:00etatik 21:00etara.

### Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitetz lekurik gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

### Megaba elkarteak kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzera.

Horretarako [www.megaba.es](http://www.megaba.es) weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

### Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak astartetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefonoz zentzua jarri du eskura dantza taldeak.

## Hemeroteka

### Duela 1109 ale



1996 urteko martxoko azken zenbakian, Lasarte-Oriako hainbat herritarrek Aste Santuan egindakoaren testigantza bildu zen TXINTXARRI aldizkarian.

Herrian erlijioari tarte egin zitzaion, jende ugari bildu zen elizkizun ezberdinetan, baita Azkorteran egin ohi den Gurutze-bidera ere.

Baina erlijio ospakizunez gain, txirindularitza Klasika eta Euskal Herriko itzulia izan ziren herrian eta udaltzainek lan ederra izan zuten. Lasaia izan ziren Labe Txikiko okinak edo orduko Michelingo atezaina, Pedro Caceres.

Honetaz gain, herritar ugari Errealaren partida ikustera joan zen Bartzelonara. Lanbide eskolako 5. mailako ikasleak Mallorcan izan ziren eta Batasuna kultur kirol elkarteko hogeita bi lagun Pirinioetan Araguëlls, Tempstedes eta Villabierna igo zituzten.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)





Irungo Betiko Ametsa abesbatzak Aste Santuko doinu eta Bibliako pasarteak nahasten zituen emanaldi berezia eskaini zuen.

# Fedea Aste Santuan

Herritarrek ez zuten ohiko elizkizunetan huts egin

**Aste Santua batzuentzat opor egunak dira eta Lasarte-Oria zaintzen geratu edo kanpora joaten dira. Beste batzuentzat, berriz, egun hauek fedean bizitzekoak dira eta horregatik, herriko elizetan ospatzen diren ekintzetan parte hartzen dute. Hainbat izan dira aurten ere elizkizun eta Gurutze-bideetan bildu diren herritarrek. Gainera, Aste Santuari hasiera emateko ekintza berezi bat ere izan zen, Irungo Betiko Ametsa abesbatzak garai honetako doinuak ekarri baitzituen Lasarte-Oriara.**

## TXINTXARRI

Lasarteoriatar fededunek urteroko elizkizunak ospatu zituzten Aste Santuan. Baina aurten hasiera ezberdina eman ahal izan zioten Irungo Ametsa Abesbatzaren eskutik.

Apirilaren 16a, asteazkena, Aste Santuko ospakizunen aurrekari gisa, Irungo Betiko Ametsa abesbatzak doinuak eta errezitaldiak uzartu zituen emanaldi berezi batean.

Ama Brigitarren komentura hurbildu ziren herritarrek koru bizantinoak, Ave Maria, Aita Gurea edo Domine Jesu Christeren antzeko kantuak gozatu ahal izan zuten.

Musikari handien doinuak Jesus martiriua, heriotza eta pizkundea kontatzen dituzte San Pabloren irakurgaiak nahastu zituzten emanaldi polit eta deigarria osatzeko.

## Elizkizunak

Ostegun Santuan eman ziztzaion kristauentzat horren garrantzitsua den aldiari hasiera.

San Pedro parrokian, Arantzazuko Amaren elizan edota Brigitarren komentuan egin ziren Meza Santuetara joan ziren herritarrek.

Ostiral Santu egunean berriz, Jesusen Kalbario Bidea gogoratu dute otoitz eta kantu artean. Azkenik, larunbat gauean Pazko Gaubela egingo dute eta igandean Jesusen pizkundearengatik otoitz egin zuten denek.

## Gurutze-bideak

Izan ere, Lasarte-Oriako hainbat herritarrek emozio handiz bizi dituzte Aste Santuko ospakizunak.

Herritar andana bildu da egun hauetan elizetan egin diren ospakizunetara eta Ostiral Santuko Gurutze-bidea bereziki jendetsua izan da.

San Pedro parrokiako lagunak Xabier Andonegi apaizak gidatuta Jesus gurutziltzatu aurreko etapak gogorarazi zituzten goizean goiz.

Eguraldi zoragarriarekin San Pedro eliza eta Sausta baserri aurreko aldare txikiaren arteko bidea egin zuten. Guztira 100 bat kristau bildu ziren eta ohitura den moduan, etapa edo egonaldi bakoitzean Pasioaren pasarteren bat irakurri, otoitz egin eta kantatu egin dute hurrengo egonaldira iritsi bitartean.

Ez zen herriko Via Crucis bakarria izan, Arantzazuko Amaren Parrokiatik Azkorterera ere egin baitzuten Gurutze-

bidea. Honetan ere hainbat herritar bildu zen eta Urmieta bidetik gora eginen zuten hauek ere Azkorte ermitaraino.

Eta hainbeste ibiltzerik ez zutenek, Brigitarren komentuko Via Crucis-ean parte hartzeko aukera izan zuten. Ohi bezala komentuko kapera barruan egin zen eta Xabier Andonegik zuzendua izan zen.

## Pasioa eta pizkundea

Ostiral arratsaldean, berriz, Jesusen Pasioa gogoratu zuten San Pedro parrokia, Arantzazuko Amaren elizan eta Brigitarren komentuan.

Larunbata gauean, Pazko Gaubela ospatuko zen Arantzazuko Amaren parrokian eta Brigitarren komentuan.

Bestalde, Pazko igandean ere herritar ugari bildu zen Aste Santuari amaiera emateko egin ziren mezetera.

Bitan gainera musika izan zen nagusi.

San Pedro parrokian Bos-teko taldearen ahotsak entzun ahal izan ziren Xabier Andonegi parrokoak zuzendutako eukaristian.

Oriako Karmengo Amaren kaperan berriz, Ramon Uribe-Etxeberria apaizak gidatu zuen pazko eguneko meza. Pilar Catalina eta Amaia Lizarraga sopranoak Amaia Dorronsoro piano-jolearen laguntzarekin meza girotu zuten.

Ostean, kaperara hurbildu ziren lagunak bi sopranoen emanaldiaz gozatu ahal izan zuten.

Pizkundearen ostean, maiatzean Jesusen igokundea eta Mendekoste ospatuko dituzte fededunek eta ekainaren 6an, Corpus eguna.



Ama Brigitarren komentuan ere Aste Santuko elizkizunek jendea bildu dute.



Eguraldia lagun, herritarrek ederki egin zituzten Ostiral Santuko Gurutze-bideak.



Oriako kaperan Pilar Catalina eta Amaia Lizarraga sopranoek emanaldi eskaini zuten.